

Kanji.Bilaketa.Erabiler


Kotobai

www.kotobai.com/eu/

GoiHata SL Araba Etorbidea. 3-2º Eskatu Eraikina
20500 Arrasate Gipuzkoa EUSKADI
Tel: 943.792575

Kanji Bilaketa Nola erabili

- 1) **Kanji Bilaketa**-ra sartzeko aukeratu - <http://www.kotobai.com/eu/ideograma-bilaketa/> esteka.
Zazpi bilaketa mota ditu. -> Kanji (漢字), Japoniar Ahoskera, Txinatar Ahoskera, Korear Ahoskera, Euskara, DeRoo Kodea, Unikode



Kanji bilaketa-k 13.108 ideograma ditu. Zerrenda hau, [James William Breen](#)-ek eta [EDRDG taldeak](#) sortutako lan bikainetik aterata dago. <http://www.edrdg.org/edrdg/licence.html> Euskara itzulpena Jon Goikoleak egina dago (Oraingoz 6.356 ideograma). Euskaratuta ez dauden gainontzeko kasuan, Ideogramaren esanahia ez da ezagutzen edo "ITZULTZEKE" eta ondoren ingelesezko itzulpena agertuko da.

- A) **Kanji (漢字)** -> Sartu ideograma bat eta bilatu (Search) egin ondoren bere xehetasun guztiak agertuko zaizu.
- B) **Japoniar Ahoskera** -> Sartu Kun, On, edo Izen irakurketak, bai latin alfabetoan edo Hiragana (Kun), katakana (On eta Izenak) alfabetoan bere ideograma bilatzeko.
- C) **Txinatar Ahoskera** -> Txinatar ahoskera hori duten ideograma zerrenda agertuko da.
- D) **Korear Ahoskera** -> Sartu Hangul (korear alfabeto silabikoa dakizuenentzat) edo latin alfabetoa eta ahoskera hori duten ideograma zerrenda agertuko da.
- E) **Euskara** -> sartu euskarazko hitza eta horren esanahia duen ideograma zerrenda agertuko da.
- F) **DeRoo Kodea** -> 2010.garren urtean "JAPONIAR IDEOGRAMAK" ISBN:84-614-3434-3 liburua argitaratu genuen, eta bertan jarraitzen den DeRoo Kode <http://www.kotobai.com/fileadmin/images/DeRoo.Kodea.pdf> zenbakia sartuz, zenbaki horri dagozkion ideograma zerrenda agertuko da.

1446 有 YŪ, U, a-ru: izan, existitu, eduki (ekinean ㄆ 2247 dagoen gorputza 月 1653. norberaren gorputza 月 sentitzen duen eskua ㄆ) ##282 有力 ゆうりょく yūryoku: indartsu, eragin handiko 所有 しょゆう : shoyū: edukitze, jabetza, jabego
--

- G) **Unicode** -> Kanji letrari dagozkion kode internazionala da. Hau sartu eta bere ideograma agertuko da. Adibidez 65E5 → 日 Hau oso baliagarri gerta daiteke, informatikoki letra jakin bat sartzeko. Adibidez. MSWord programan idatzi kode bat
-> 65E5 aukeratu arratoiaz eta - + - aldi berean sakatuz bere letra -> 日 agertuko da.

Kanji Bilaketa-k bi aukera ematen ditu. **Zerrenda aukera** eta **Bakarreko aukera**

- **Bakarreko aukerakoak** → Kanji (漢字) eta Unikode bilaketa motak dira

- **Zerrenda aukerakoak** → Japoniar Ahoskera, Txinatar Ahoskera, Korear Ahoskera, Euskara eta DeRoo Kodea bilaketa motak dira.

Zerrenda aukera

Emaizta guztiak: 19

#	Kanji	Marrak	Euskara
1	正	5	zuzen, zuzendu, egoki, zehazki
2	有	6	izan, existitu, eduki
3	州	6	probintzia, estatu, are bankua
4	邑	7	herri, auzo, eskuineko erradikala 163. zbkia
5	邦	7	herrialdea, Japonia
6	国	8	ITZULTZEKE country
7	国	8	herrialde (estatu), nazio
8	祇	8	lurreko jainkoa, baino
9	国	9	herrialde, nazio
10	城	9	gaztelu

<< < > >>

Bakarreko aukera

有 Euskara: izan, existitu, eduki
Osagaiak: 有, 一, 月 Gure hiztegian: 有

Japoniar Kun: ある
Kun (romaji): aru
Japoniar On: コウ, ウ
On (romaji): yuu, u
Japoniar izenak: あ, あら, あり, ある, くに, なお, ゆ
Izenak (romaji): a, ara, ar

DeRoo Kodea: 1446 Marrak: 6 Irakaskuntza: 3
Unicode: 6709 Erradikal Zenbakia: 74 Maiztasuna: 282
Nelson zaharra: 3727 Nelson berria: 4756 Jis208: 45-13

Txinatar ahoskera: you3, you4

Korear: 유 yu

Goiko **Zerrenda aukera** horretako kanjian klik eginez **Bakarreko aukera** aterako da. Zerrendan hurrengo/aurreko orrira joateko sakatu “<” edo “>”. Lehen orrira joateko sakatu “<<”. Azkenengo orrira joateko sakatu “>>”. Kanjiak marra kopuruaren arabera daude sailkatuta

Bakarreko aukera -> Kanji xehetasunak.

次 Euskara: hurrengo, ondorengo, jarraitu
Osagaiak: 欠, 辶 Gure hiztegian: 次

Japoniar Kun: つぐ, つぎ
Kun (romaji): tsu.gu, tsugi
Japoniar On: ジ, シ
On (romaji): ji, shi
Japoniar izenak: き, すき, つぐ, よし
Izenak (romaji): ki, suki, tsugu, yoshi

DeRoo Kodea: 362 Marrak: 6 Irakaskuntza: 3
Unicode: 6b21 Erradikal Zenbakia: 76 Maiztasuna: 222
Nelson zaharra: 638 Nelson berria: 2929 Jis208: 28-01

Txinatar ahoskera: ci4

Korear: 차 cha

Kanji xehetasunak → 次 .

Euskara; Ideograma horren esanahia → “**hurrengo, ondorengo, jarraitu .**”

Osagaiak; Ideograma egiteko erabiltzen diren erradikal (oinarrizko zati) desberdinak. → 欠, ㇇

Japoniar Kun: Ideograma horri dagozkion Japoniar jatorrizko ahoskera desberdinak. Hiragana alfabetoan idatzita. → つ, ぐ, つぎ .

Kun (romaji): Kun letrak gure alfabeto latinoan idatzita. Hau da Kun ahoskera. → **tsu.gu, tsugi .**

Japoniar On: Ideograma horri dagozkion Txinatar jatorrizko ahoskera desberdinak japonieraz. Katakanaan idatzita. → ㇇, シ .

On (romaji): On letrak gure alfabeto latinoan idatzita. Hau da On ahoskera. → **ji, shi .**

Japoniar izenak: Japoniar izen propioetan erabilitakoan, ideogramak hartzen dituen ahoskera desberdinak.
→ き, すき, つぐ, よし .

Izenak (romaji): Izenak alfabeto latinoan idatzita. Hau da izen horien ahoskera. → **ki, suki, tsugu, yoshi .**

DeRoo Kodea: Kanjiak sailkatzeko, [Jos R. De Roo-k asmatutako kodea](#). 2001 Kanji liburuan agertzen dena. Jon Goikolea-k erabili zuen berdineko kodea [Japoniar Ideogramak](#) liburuan (2010.ean argitaratua). Goiko taulan agertzen den DeRoo Kodean klik eginez gero, ideograma horri buruzko azalpen txiki bat agertzen da, bere ikasketa errazte aldera. → **362 .**

Marrak: Ideograma idazteko erabiltzen den marra kopurua. → **6 .**

Irakaskuntza: Japoniar irakaskuntza sisteman ikasten den urtea edo maila. → **3 .**

UniCode: Ideograma horri dagozkion kode internazionala. Adibidez → **6b21** = 次

MSWord dokumentuan aukeratu edozein letra. Adibidez 次

Sakatu batera - **Alt** + **X** - teklatuan eta bere kodea agertuko da -> **6b21**

eta berriz sakatuz letra bueltatuko da. **6b21** -> - **Alt** + **X** -> 次 kodea jakinez gero, edozein letra edo ideograma idatzi dezakegu.

Erradikal Zenbakia: Ideograma hiztegi tradizionaletan aukeratzen den erradikal zenbakia. Guztira 252 Erradikal (osagai) daude. → **76.**

Maiztasuna: Japoniar egunkari eta aldizkarietan, ideograma hori errepikatzen den maiztasuna. Gehien errepikatzen denak (日) Bat (1) zenbakia izango du. Gehien erabiltzen diren 2.000 ideogramak sailkatuta daude. Zenbakirik ez badu, esan nahi du erabilera ranking edo zerrenda horretan 2.000 garren postutik atzera dagoela eta gutxi erabiltzen dela. → **222.**

Nelson zaharra: Nelson hiztegia. Oso ezaguna den eta oso hedatua dagoen Kanji ideograma hiztegi bat da. ([The Modern Reader's JAPANESE-ENGLISH CHARACTER DICTIONARY by Andrew N. Nelson](#)). Urte askotan, Japoniera ikasle artean erreferentziatzeko hiztegi garrantzitsua izan dena. Hiztegi honetako sailkapen zenbakia da. → **638**

Nelson berria: Nelson hiztegi bertsio berriaren (ISBN-13: 978-0804820363) ideograma sailkapen zenbakia.
→ **2929**

Jis208: Hau japoniarrek ordenagailuetan erabiltzeko asmatu zuten, ideograma kode bat da (JIS-X-0208). Zerrenda honetan hiragana, katakana & gehien erabiltzen diren ideogramak daude. “Unicode” kode internazionala hedatu aurretik erabiltzen zen, baina gaur egun ezer gutxi erabiltzen da. → **28-01**

Txinatar ahoskera: Kanji ideogramen sorrera eta jatorria Txinakoa da. Gaur egun txinera estandarrean duen ahoskera eta bere intonazioa. → **ci4** Beraz txinera ikasleentzat ere oso interesgarria!!

Korear: Nola ahoskatzen den ideograma Hego Korean. Lehenengo korear idazkera silabikoa (Hangul irakurtzen dakizuenentzat) eta ondoren latinezko alfabetoan dago idatzita. → **차 cha.**

Gure hiztegian; Hemen klik egiten baduzu → **次**. Esteka honek Japoniar hiztegira eramango zaitu.

次 検索/Bilatu

前方一致/Hasiera
 後方一致/Bukaera
 一部/Du
 完全一致/Zehatza

バスク語/Euskara
 漢字/Kanji
 かな/Kana
 Romaji

aletu 他/Du aditza

次から次へと何かをおこなう つぎ から つぎへと なにかを おこなう tsugi kara tsugieto nanika o okonau

aurkibide 名/Izena

目次 もくじ mokuji

bigarren 形/Adjektiboa

副次的な ふくじてきな fukujiteki na

geroko 形/Adjektiboa

次の つぎの tsugi no

hurko 形/Adjektiboa

次の つぎの tsugino

hurren 形/Adjektiboa

次の つぎの tsugino

hurrengo 形/Adjektiboa

次の つぎの tsugi no

hurrengoan: 次に、次回
hurrengorako: 次回までに

ondoren 副詞/Adberbioa

DeRoo Kodea: Hemen klik egiten baduzu → **362**. Esteka honek “[Japoniar Ideogramak](#)” liburuan agertzen den azalpenera eramango zaitu.

362 **次** Ji, SHI, tsugi: **hurrengo, ondorengo**. Ji: -x **gertakariak** [回 3777].
tsu-gi: -n **ondoren sailkatu** (atzekoa, **bigarren** 二 3072, **aldatua agertzen da** **bigarren** へ **palankin eroalea** 欠 2562) ##222
 次期 **じき jiki**: **hurrengo bilkura/ denboraldia**
 順次 **じゅんじ junji**: **ordenan/segidan jarrita, serie**
 次々 **つぎつぎ tsugi tsugi**: **hurrenez hurren**

www.Kotobai.com/eu/ barruan hurrengo 4 tresnak elkar lotuta daude.

[Japoniera hiztegia](#)

[Kanji ideograma hiztegia](#) – Kanji erradikalez

検索/Bilatu

前方一致/Hasiera
 後方一致/Bukaera
 一部/Du
 完全一致/Zehatza

バスク語/Euskara
 漢字/Kanji
 かな/Kana
 Romaji



[Ideograma bilaketa](#)

[“Japoniar Ideogramak” liburua](#)

Bilaketa: Search

Kanji (漢字)

- Kanji (漢字)
- Japoniar Ahoskera
- Txinatar Ahoskera
- Korear Ahoskera
- Euskara
- DeRoo Kodea
- Unicode

